

EUSKAL PRESOAK. Azken hilabeteen batzuek gose grebak egin dituzte, eta beste batzuk zigor ziegetan izan dira

Azaroan hasi protestaldia bukatu egin dute Frantziako kartzeletan diren presoek

Presondegien baitan bereiziak ziren presoak bertzeekin batera ezartzea erdietsi dute

Hur Gorostiaga | BAIONA

Frantziako presondegiengan di-
ren euskal presoek joan den
azaroaren 13an hasi zuten pro-
testaldia bertan behera utzi zu-
ten atzo, presondegiatako ardu-
radunek beren eskakizunak
bete ondoren.

Presondegiengan euskal pre-

soak batzuk bertzeenganik be-
reizi eta, sistematikoki, elkarre-
kin komunikatzea debekatzen
hasi ziren joan den uda bukaer-
an, presoek senideen bidez ja-
kinarazi zuten. Gureak elkar-
teak salatu zuenez, presoak
urrundu eta hainbat presonde-
gitan sakabanatzeaz gain, pre-
sondegi berean zirenak ere el-

karrenganik urruntzen hasi zi-
ren, presoak bakarrik senti zite-
zen.

Hala ere, Gureak elkar-
teak heldu diren egunetan eginen
du borrokaldiaren balorazioa.
Izan ere, presondegien baitan
bereizirik zirenak batzea erdi-
etsi badute ere, bertze 12 euskal
preso bereizirik atxikitzen di-
tuzte, presondegi osoan euskal
herriar bakarrik izanik. Hori-
tarik hamar kondenatuendako
atxiloketa zentroetan daude,
eta bertze bi behin-behineko

presondegiengan: Aitziber Uri-
betxeberria Gradignan-en eta
Kepa Ugalde Osny-n.

16 eguneko gose greba

Azaroaren 13an presoek abiatu
protestaldia ez da ondoriorik
gabekoa izan. Izan ere, gose
greba, itxialdi, zigor ziegetara
joate eta presondegi-
ko janari
ukatzeak egin baitituzte.

Josetxo Arizkuren-ek, Fleury
Merogisen preso dagoen iruin-
darrak, atzo eten zuen 16 egu-
neko gose greba. Arizkuren-ek
joan den urtean 54 eguneko go-
se greba egin zuen, eta osasun
aldetik ondorio larriak utzi ziz-
kion.

Fleury-n bertan, Aritz Aran-
buruk hamar eguneko gose gre-
ba egin zuen, baita Juan Karlos
Iglesias-ek ere. Emakumezkoen
presondegian, berriz, Kontxi
Iglesias-ek bi aste-
ko gose greba
egin zuen, eta Fleury-ko bertze
hamar preso zigor ziegan izan
dira azken hilabeteen.

Kepa Mujika eta Aitzol Go-
gorzak ere gose greba egin du-
te. Lannemezan, Nanterre, Ar-
les eta Clairvaux-en presonde-

Euskal Presoen Aldeko Astea antolatu du Tolosan hurrengo astean LAB sindikatuak

Astelehene-
tik larunbatera
Euskal Presoen Aldeko Astea
antolatu du Tolosan LAB
sindikatuak. Astelehenean
izango da aurreneko ekital-
dia, arratsaldeko 19:30ean:
auto ilara bat aterako da To-
losako Eroskiko aparkaleku-
tik eta Villabonako Danena
futbol zelaitik. Asteartean,
arratsaldeko 20:00etan, Eus-
kal presoen eskubideen alde-
ko elkarretaratzea egingo
da Tolosako Triangelu pla-
zan. Ostegunean, arratsalde-
ko 20:00etan, mahai-ingurua
egingo da Apaiz Etxean. Os-
tiralean, berriz, kontzentra-
zioak egingo dira lantegie-
tan, eta arratsaldeko
20:00etan itxialdia Tolosako
udaletxean. Azkenik, larun-
batean, eguerdiko
12:00etan, udaletxeko itxial-
dia amaitu ostean, giza katea
egingo da Tolosako kaleetan
barrena.

Euskal presoen eskubideen aldeko ekitaldi ugari antolatu dituzte Azpeitian

Euskal presoen eskubideen
aldeko hainbat ekitaldi anto-
latu ditu hurrengo hiru egu-
netarako Azpeitiko Euskal
Presoak Euskal Herrira pla-
taformak: gaur, Soreasu
antzekian, gaueko
22:00etan, Ikasberri Azpeiti-
ko Ikastolako Lakrikun
Antzerki Taldearen obra;
bihar, eguerdiko 13:00ean,
Sanjuandegiko Jose Antonio
Agirre enparantzan, Nuarbe
eta Urrestillako herri kirol
taldeen arteko lehia; igande-
an, berriz, arratsaldeko
19:00etan, presoen eskubi-
deen aldeko elkarretaratze
isila egingo da.

Presoen aldeko Konpromiso Eguna egin dute Bizkaiko campusetan

Euskal preso politikoen es-
kubideen aldeko Konpromi-
so Eguna egin zen atzo Biz-
kaiko unibertsitate campu-
setan, eta antolatzaileek
«arrakastatsua» izan zela
adierazi zuten. Fakultate-
tan egindako hitzaldietan
300 lagunetik gora bildu zi-
ren, eta eguerdian giza kate-
ak eta manifestazioa egin zi-
ren PPren egoitzaraino. Ber-
tan, «Euskal Herriak hala
eskatzen duelako», presoak
Euskal Herriratzea galdegin
zuten.



BOB EDME

Euskal presoen senideek azaroaren 29an prentsaurrekoa egin zuten Baionan, bakartzea salatze-
ko.

ESPAINIAKO ESPETXEAK

Bost presondegitan jarraitzen dute protestan

Frantziako presondegiengan euskal presoen ba-
kartze egoera konpontzen ari den unean, Espai-
niako bost presondegitan euskal presoek pro-
testan jarraitzen dute, presondegi berean ber-
tze euskal presoengandik bereiziak eta bakar-
tuak diren euskal presoen egoera salatze-
ko.

Madrilgo Alcalako presondegian itxialdi
mugagabea dira urriaren 22tik, Asensio,
Fullaondo eta Gramont hiru modulutan bakar-
tuak baitira. Protesta gisa, 35 presoak ez dira
euren ziegetarik ateratzen. Valentzia II kartze-
lan ere itxialdi mugagabea ari dira uztailean
12tik. Bertan dauden bi presoak, Luis Angel
Galarza eta Txemi Arteagak, ez dutelako elkar
ikusten. Modulu banatan izanik, oren eta egun

ezberdinetan dituzte bisitak, eta horrek zaiala-
go egiten du familien bidaia antolatzea.

Espainiako bertze muturrean, Cadizeko
Puerto I presondegian zortzi preso itxialdi
mugagabea dira urriaren 24tik. Iñaki Rekarte,
Iñaki de Juana eta Josu Uribetxeberria preso
bakartuak izateaz gain, bakartze ziegetan bai-
tituzte, eta oso egoera larrian gainera.

Curtisen, Galizian, Kepa Urrea eta Alberto
Plazaola bakarturik eta itxialdian dira, konta-
ketetan zutik ezartzea ukatzen dutelako. Epai-
leak zutik ezartzea derrigortzea legez kanpo-
koa zela adierazi arren, espetxeak ez du
kasurik egin eta zigortzen segitzen du. Egoera
okertzen ari da azken egunotan, zutik indarrez
ezarrarazten baitituzte, familiek jakinarazi
duten.

Valdemoron, itxialdian dira abenduaren
4tik. Harriet Iragi bakartze moduluan bakarrik
atxikitzen dutela salatze-
ko.